

## **Basque - Otoitz Egiten Salmoak - WP Psalms**

**Salmoak 67:1 Jainkoa jaiki eta haren etsaiak sakabanatu!  
Gorroto diotenak ihesi doaz haren aurretik.**

**Salmoak 5:10,11 Horien ahoan ezer ez fidagarririk, horien barrena leize-zuloa, eztarria hilobi zabaldua, mihia, berriz, leun eta labaina. 11 Jainko, ordain bezate beren hobena! Lur jo bezate beren egitasmoengatik! Bota itzazu kanpora beren txarkeria neurrigabeagatik, zure aurka jaiki baitira.**

**Salmoak 10:6 Bidal dezala txingarra eta sufre-auria horien gainera! Izan bedi haize kiskalgarria horien zoria!**

**Salmoak 17:15 Geziak jaurtiz sakabanatu zituen, tximista eginez ihes eragin.**

**Salmoak 17:18 Etsai indartsuagandik salbatu ninduen, ni baino indartsuago ziren arerioengandik.**

**Salmoak 17:40 Indarrez jantzi ninduzun gudurako, menpean jarri zenizkidan arerioak.**

**Salmoak 17:46 Atzerritarrak kikildu egin ziren, eta beren gordelekuetatik dardaraka irten.**

**Salmoak 26:11 Erakustazu, Jauna, zeure bidea, eraman nazazu bide zuzenetik, etsaiak ugari baititut.**

**Salmoak 34:1-8 Davidena. Salatu, Jauna, salatzen nautenak; borrokatu, borrokatzen nautenak. 2 Hartu ezkutua eta koraza, eta zatozkit laguntzera. 3 Atera lantza eta azkona, pertsegitzen nautenei aurre egiteko, eta esadazu: «Neu nauzu salbatzaile!» 4 Huts egiezu eta lotsarazi ni hiltzeko dabiltzanak. Atzera egin bezate, lotsa gorrian, ni nondik hondatuko dabiltzanek. 5 Izan bitez haizeak daraman lastoaren antzeko, zure aingeruak kanpora jaurtitzean! 6 Izan bedi ilun eta labain haien bidea, zure aingeruak pertsegitzean! 7 Arrazoirik gabe, tranpa jarri didate; motiborik gabe, zuloa zabaldu. 8 Betorkie gainera ustekabeko hondamena! Harrapa bitza jarri duten tranpak eta eror bitez hondamendian!**

**Salmoak 51:7 Jainkoak berak suntsituko zaitu betiko, zeure bizilekutik botako, zure sustriak bizidunen lurretik aterako.**

**Salmoak 59:14 Jainkoarekin gauza handiak egingo ditugu,berak**

**zapalduko dizkigu etsaiak.**

**Salmoak 65:3 Esan Jainkoari: «Zu bai izugarria zeure egintzetan!  
Zure indar handiaren aurrean, makurtu egiten dira zure  
etsaiak.**

**Salmoak 67:36 Ikaragarria Jainkoa santutegian: bera da Israelen  
Jainkoa, bere herriari indar eta kemen ematen diona!  
Bedeinkatua Jainkoa!**

**Salmoak 69:2 Ene Jainko, zatoz ni libratzera! Jauna, zatoz laster  
laguntzera!**

**Salmoak 70:13 Gal bitez lotsagarri nire salatzaileak! Irainak eta  
desohoreak estal bitza nire zoritxarraren bila dabiltzanak!**

**Salmoak 76:12 handikiak arnasarik gabe uzten eta munduko  
erregeei ikara ematen dienari.**

**Salmoak 117:10 Jentil-herriek inguratu ninduten: Jaunari esker  
erabat suntsitu nituen.**

**Salmoak 117:12 Liztorrek bezala inguratu ninduten, sua  
sastrakan bezala zirtaka: Jaunari esker suntsitu nituen.**

**Salmoak 149:8,9 haien erregeak katez eta handikiak girgiluz  
lotzeko. 9 Jainkoak idatziriko epaia betetzea ohoragarri da  
haren fededun guztientzat! Aleluia! Gora Jauna!**

**Pastor T. John Franklin  
Church of Salvation, Healing, and Deliverance  
COS-HAD.org**